

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2022ko ekainaren 14koa ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena

– **Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak:**

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 8/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, ekainaren 14koa. Onespena ematea aldatzeari Balio Erantsiaren gaineko Zergaren urtarilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretua.

Foru Gobernu Kontseiluaren 9/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, ekainaren 14koa. Onespena ematea TicketBAI betebeharrari buruzko hainbat neurriei.

– **Foru dekretua:**

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 25/2022 Foru Dekretua, ekainaren 14koa. Onespena ematea Santiagoko Azokan beren ekoizpena merkaturatzeko pertsona, enpresa edo entitate ekoizleek izan behar duten partaidetza arautzen duten oinarriei, bai eta 2022rako deialdiari ere.

– **Erabakiak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 345/2022 Erabakia, ekainaren 14koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundia berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko itunari atxikitzeari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 346/2022 Erabakia, ekainaren 14koa. Laudioko Udalarekin lankidetzaren hitzarmen bat izenpetzea, Laudioko ekintza eta kultur unea eraikitzeke.

EKONOMIA GARAPENAREN, BERRIKUNTZAREN ETA DEMOGRAFIA ERRONKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 347/2022 Erabakia, ekainaren 14koa. Onestea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrekiko eta Mercedes-Benz España SAUrekiko lankidetzaren esparruari buruzko elkar-aditze memorandum bat sinatzea, bertoko ekoizpen egitura eraldatu eta indartzeko prozesuari ekiteko, COVID-en ostean suspertze aldera, eraldaketa teknologiko-digitalen eta energetiko-klimatikoan oinarrituta.

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 348/2022 Erabakia, ekainaren 14koa. Onespena ematea Moldiztegi material berezien hornitzaileak homologatzeko esparru akordioa prozedura ireki bidez kontratatzeke espedienteari, 253.979 euroko aurrekontuarekin (BEZa barne) eta 2024ko abenduaren 31ra arteko gauzatzeke epearekin.

Foru Gobernu Kontseiluaren 349/2022 Erabakia, ekainaren 14koa. Onestea "Bono Denda" programa, Arabako Lurralde Historikoko txikizkako merkataritza establezimenduetako eta hiriko merkataritza jarduerarekin lotutako zerbitzuen establezimenduetako ondasunen eta zerbitzuen kontsumoa sustatzeko.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 350/2022 Erabakia, ekainaren 14koa. Behin betiko onespena ematea Legutioko ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako hiri lurzorua mugatzeko aldaketa partzialari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 351/2022 Erabakia, ekainaren 14koa. Onespena ematea 12/2022 eta 13/2022 konpromiso kredituak birbanatzeko espedienteei, 3.902.528,00 euro eta 9.804.144,60 euroko zenbatekoaz, hurrenez hurren, "20-21 Obra eta Zerbitzuen Foru Plana AKK" eta "22-23 Obra eta Zerbitzuen Foru Plana AKK" partidetakoa aurrekontu esleipenak doitzeko, Lurralde Orekaren Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 352/2022 Erabakia, ekainaren 14koa. Onestea aurrekontua aldatzeko zenbait espediente, Aiarako eskualderako plan estrategiko bat ezartzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 353/2022 Erabakia, ekainaren 14koa. Onespena ematea Indesa 2010 SLri Elizbarrutiko Apaizgaitegiko Latindarren Pabiloiaren bigarren solairuan dagoen 57 zenbakiko lokala erabiltzeko doako lagapena egiteari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 354/2022 Erabakia, ekainaren 14koa. Onespena ematea luzatzeari Lantziegoko Udalariz Armendariz Jauregia izeneko eraikina (Elizaren plaza, 1) erabiltzeko doako lagapena, bai eta eraikin hori eta udal igerilekuak dauden lurzatia erabiltzekoa ere.

Foru Gobernu Kontseiluaren 355/2022 Erabakia, ekainaren 14koa. Onespena ematea Fernando Buesa Arena pabiloiaren ustiapena Araba Garapen Agentzia SAri lagatzeari.

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 356/2022 Erabakia, ekainaren 14koa. Onestea Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren 2022-2023ko deialdiaren ebazpena.

Foru Gobernu Kontseiluaren 357/2022 Erabakia, ekainaren 14koa. Onespena ematea Kontseiluaren apirilaren 12ko 235/2022 Erabakiaren bidez deitutako Garabide dirulaguntzen lehenengo esleipenari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 358/2022 Erabakia, ekainaren 14koa. Onespena ematea lehiaketa arrunterako 2022ko deialdiari, gaikuntza nazionala duten toki administrazioko funtzionarioentzat erreserbatuak eta hutsik dauden lanpostuak betetzeko Araban.

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 359/2022 Erabakia, ekainaren 14koa. Esleitu gabe uztea eta onespena ematea foru sareko zenbait errepidetan hartxintxarra botaz gainazala tratatzeko 2022ko proiektua prozedura irekiaren bidez kontratatzeko espediente berriari. Aurrekontua: 786.513,55 euro, BEZa barne; gauzatzeko epea: hiru hilabete.

Foru Gobernu Kontseiluaren 360/2022 Erabakia, ekainaren 14koa. Onespena ematea, Europar Batasunaren NextGeneration EU funtsak finantzatzeko Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan, Arabako Lurralde Historikoan datu aurreratuak sortu eta trukatzeko zerbitzua prozedura ireki bidez kontratatzeko espedienteari. Aurrekontua: 202.287,80 euro, BEZa barne; gauzatzeko epea: 4 hilabete.

Foru Gobernu Kontseiluaren 361/2022 Erabakia, ekainaren 14koa. Onespena ematea luzatzeari AP-68 eta AP-1eko bidesarietarako dirulaguntzen deialdiak kudeatzeko Arabako Bideak SA sozietate publikoarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmena.

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 362/2022 Erabakia, ekainaren 14koa. Onespena ematea nekazaritzako lehen instalazioa sortzeko enpresa plana aldatzeari, zeina Kontseiluaren uztailaren 27ko 478/2021 Erabakiaren bidez onetsi baitzen (04-2021-5535).

Foru Gobernu Kontseiluaren 363/2022 Erabakia, ekainaren 14koa. Baiestea Kontseiluaren azaroaren 23ko 718/2021 Erabakiaren aurka aurkeztutako berraztertze errekurtsoa (47-2021-16/2).

Foru Gobernu Kontseiluaren 364/2022 Erabakia, ekainaren 14koa. Onespena ematea Erriberagoitiko Udalari dirulaguntza bat emateari, San Migel herrira sartzeko landa bidea egokitu eta hobetzeko obrak ordaintzeko.

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 365/2022 Erabakia, ekainaren 14koa. Onespena ematea luzatzeari Arkaiako termen aztarnategi arkeologikoari balioa eman eta hura zabaltzeko lanak egiteko eta justifikatzeko epea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 366/2022 Erabakia, ekainaren 14koa. Onartzea Kontseiluaren uztailaren 27ko 479/2021 Erabakiaren bidez emandako dirulaguntza justifikatzeko agiriak.